



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko martxoaren 30a

43. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontuen Ganberak Nafarroako kontu publikoetarako eginiko zenbait gomendio aplikatu ditza. Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Legebiltzarreko Erregelamenduan galderen erantzunerako ezarritako epeak bete ditza. Erregelamendu Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, Nafarroarako osasun-garraioaren eredia aztertzeko. Osasun Batzordeak onetsia (3. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu Belgikan martxoaren 22an gertatutako atentatuak, eta bat egiten baitu atentatu horiek Nafarroako nahiz Europako gizartearen eragin duten atsekabearekin eta aztoramenarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Antsoingo Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (5. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontuen Ganberak Nafarroako kontu publikoetarako eginiko zenbait gomendio aplikatuak.

OGASUNEKO ETA FINANTZA POLITIKAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordeak, 2016ko martxoaren 22an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontuen Ganberak Nafarroako kontu publikoetarako eginiko zenbait gomendio aplikatuak."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Kontuen Ganberak Nafarroako kontu publikoetarako eginiko gomendio hauek aplikatuak:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra onestea.

2. Nafarroako Foru Komunitatearen ondasun eta eskubide guztien inbentario balioetsia egitea, ibilgetuko kontabilitate-saldoak oinarrituko dituenak.

3. Kontu Orokorren oroitidazkian sartzeari ekitaldian eginiko jarduerari eta dagoen egoera hobeki ulertzeko informazio guztia.

4. Kontratuak eta sozietate publikoetarako egindako enkarguak garaiz izapidetzea.

5. Zerbitzuen kostua kalkulatzeko sistema bat sartzeari; besteak beste, osasun prestazioena.

6. NUPen jardueraren finantzaketarako eredu berri bat onestea, helburuak eta haien betetze-maila neurtzeko adierazleak ezarritik, zeina beharrezkoa baita emaitzetan oinarritutako finantzaketa baterako.

7. Egungo testuinguru ekonomikoaren barruan aztertzea inbertsio-politika, eta produkzio-inbertsioak, inbertsio lehenetsiak eta bideragarriak sustatzea.

8. Kontu-hartzailetza Orokorra auditoriak egitea sozietate eta fundazio publikoek legezkotasuna betetzen ote duten ikusteko."

Iruñean, 2016ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Legebiltzarreko Erregelamenduan galderen erantzunerako ezarritako epeak bete ditzan.

ERREGELAMENDU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak, 2016ko martxoaren 22an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Legebiltzarreko Erregelamenduan galderen erantzunerako ezarritako epeak bete ditzan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betetz, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du zorrotz bete ditzan Legebiltzarreko Erregelamenduan galderei erantzuteko ezarritako epeak, bai galdera idatziei bai informazio eskariei dagokienez, Legebiltzar hau osatzen duten taldeen parlamentu-jarduera azkartu eta errazte aldera.”

Iruñean, 2016ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, Nafarroarako osasun-garraioaren eredia aztertzeko.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2016ko martxoaren 15ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, Nafarroarako osasun-garraioaren eredia aztertzeko.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betetz, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du lan-mahai bat sor dezan, sindikatu guztiek, UTESNAk, alderdi politiko guztiek eta zeresana duten Foru Administrazioako departamentuetako (Barnea, Osasuna eta Hezkuntza) ordezkariak osatuko dutena eta Nafarroarako osasun-garraioaren eredia seriotasunez aztertuko duena.

Lan-mahai horrek sei hilabeteko iraupena izanen du, eta honako gai hauek landuko ditu, besteak beste:

- Foru araudia Europako UNE EN 1789:2007+A2 araudira egokitzea, uniformetasunari, NBEei eta ibilgailuen ezaugarri tekniko eta ikuskapenei dagokienez.

- Nafarroan osasun-garraio guztia zuzenean eta integralki kudeatuko duen erakunde, agentzia edo enpresa publiko bat sortzearen bideragarritasuna.

- Zerbitzu-zorroa osorik birdefinitzea.

- Osasun zerbitzu hau emateko kalitate-irizpideak.

- Gaixo infekzio-kutsagarriak lekualdatzeko jarduketak eta babes-protokoloak.

- Jarduketa-protokolo bateratuak, batez ere esku-hartzaile asko dituzten egoeretan, biktimek asko dituzten gorabeheretan eta arrisku aurreikusgarriko operazioetan.”

Iruñean, 2016ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu Belgikan martxoaren 22an gertatutako atentatuak, eta bat egiten baitu atentatu horiek Nafarroako nahiz Europako gizartean eragin duten atsekabearekin eta aztoramenarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko martxoaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu Belgikan martxoaren 22an gertatutako atentatuak, eta bat egiten du atentatu horiek Nafarroako nahiz Europako gizartean eragin duten atsekabearekin eta aztoramenarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak bere dolumina eta elkertasuna adierazten dizkie biktimei, haien senitartekoei eta Belgikako herritar guztiei.

3. Nafarroako Parlamentuak erabaki du, dolua-
ren eta lutoaren erakusgarri, Europako, Espainiako
eta Nafarroako banderak masta erdian jartzea
legebiltzarreko fatxada nagusian eta toki ofizialetan”

Iruñean, 2016ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Antsoaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Antsoaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Antsoaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (6. or.).
- II. Helburua (8. or.).
- III. Norainokoa (8. or.).
- IV. 2014ko kontu orokorrari buruzko iritzia (9. or.).
 - IV.1. Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorra (9. or.).
 - IV.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (10. or.).
 - IV.3. Udalaren 2014ko egoera ekonomiko-finantzarioa (10. or.).
 - IV.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (13. or.).

IV.5. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (13. or.).

V. Udalaren 2014ko kontu orokorraren laburpena (14. or.).

V.1. 2014ko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (14. or.).

V.2. 2014ko aurrekontu bateratuaren emaitza (15. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2014ko abenduaren 31n (15. or.).

V.4. 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (16. or.).

V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2014an (17. or.).

VI. Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (18. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (18. or.).

VI.2. Langileak (19. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (21. or.).

VI.4. Transferentzia arrunten ondoriozko gastuak (21. or.).

VI.5. Inbertsioak (22. or.).

VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (22. or.).

VI.7. Hirigintza (23. or.).

Eranskina. Udalaren 2014ko kontu orokorraren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean: www.cfnabarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Antsoaingo Udalaren eta haren menpeko entearen 2014ko kontu orokorraren erregularitasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Antsoaingo udalerriak 1,91 km²-ko azalera du, eta 2014ko urtarrilaren 1ean, 10.871 biztanle dauzka.

Tokiko zerbitzu publikoak emateari begira, Udalak erakunde autonomo bat sortua du kirola eta kultura kudeatzeko.

2014ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako bete-beharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2014-12-31n
Udala	6.545.753	7.090.814	67
Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua	253.968	98.405	3
Bateratua, guztira	6.799.721	7.689.219	70

2014an, Udalak 155.563 euroko ekarpena egin dio, guztira, bere erakunde autonomoari.

Udala, gainera, honako hauetako kidea da:

a) Iruñerriko Mankomunitatea: haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua eta eskualdeko hiri-garraioari dagozkion zerbitzuak eta taxi-zerbitzuak.

b) Antsoain, Berriozar, Iza eta Xulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: haren bidez ematen ditu etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programak, harrera eta orientabide sozialaren zerbitzua, haurtzaroaren eta familiaren zerbitzua, gizarteratzea eta lan munduan sartzeko zerbitzua, babestutako enplegu soziala eta herritar etorkinekiko ekintza-zerbitzuak.

Mankomunitatean dituen zerbitzu hauek guztiek ondoko taulan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2014an
Iruñerriko Mankomunitatea-Eskualdeko garraioa	196.818
Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	204.267

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Udal zerbitzuak	Udala	Erakunde autonomoak	Mankomunitatea	Zerbitzuen kontratazioa
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Oinarrizko gizarte-zerbitzua			X	
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua			X	
0-3 urteko haur-eskolak	X			
Musika eskola				X
Hirigintza	X			
Lorategiak	X			
Hiri-hondakinak			X	
Ur-hornidura			X	
Kale garbiketa				X
Garraio publikoa			X	
Liburutegia-ludoteka	X			
Kontsumitzailearen Arreta Zerbitzua				X
Kaleen eta bideen mantentzea	X			
Kultura	X	X		
Kirolak	X	X		
Kirol-jardueren kudeaketa				X
Udal kiroldegiak	X			X
Babestutako enplegu soziala			X	
Diru-bilketa exekutiboa				X

Toki entitateari 2014ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Entitatearen aurrekontua 2013ko azaroaren 27an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak. Halaber, Osoko Bilkura horrek berak betetze-oinarriak onetsi zituen. 2015eko martxoaren 17ko Osoko Bilkurak 2014ko kontuak onetsi zituen.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2014ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2014ko ekitaldiko kontu orokorreari buruz egindako oroitazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Antsoaingo Udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Antsoaingo Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Antsoaingo Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Udalak 2014an izandako finantza-jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.

- Udalaren finantza-egoera 2014ko abenduaren 31n.

- 2014ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetzea, eskuragarri dagoen informazioari jarraituz.

- Ganbera honek 2013ko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzen jotzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko entitateek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate-nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

III. NORAINOKOA

Antsoaingo Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak honako elementu nagusiak dauzka:

- Erakundearen beraren kontua eta haren erakunde autonomoarena: Aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: egoera-orri bateratuak (Udala eta erakunde autonomoak), oroitidazkia eta zorraren egoera-orria.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da; zehazki, honakoak aplikatu dira: "Fiskalizazio edo auditoria finantzarioaren oinarriko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 200 araua eta "Betetzeari buruzko fiskalizazio- edo auditoria-printzipio nagusiak" izeneko ISSAI-ES 400 araua. Inguruabarren eta azterlanaren helburuen arabera, beharrezkotzat jo ditugun hautaprobea edo prozedura tekniko guztiak aplikatu ditugu; prozedura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak aztertze teknika erabili dira.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoari dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarriko prozedura administratiboa ere; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nabarmenenak ebaluatu dira.

IV. 2014ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Antsoingo Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haien kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako V. atalean.

Udalaren erantzukizuna

Alkatea da kontu orokorrak aurkezteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udalak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatu aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzia eratortzen da, salbuespen bat ere baduena.

IV.1. UDALAREN 2013ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Iritziaren oinarria, salbuespen batekin

Oraindik ere ez da amaitu 1995eko inbentarioaren gaurkotze- eta onespren-prozesua.

Iritzia

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrekin irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidaziora eta Udalaren 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

IV.3. UDALAREN 2014ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 7,41 milioi euroko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 0,7 –hau da, 58.282 euro– handitu da aurrekontu-aldaketen bitartez: Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 7,46 milioikoak dira. Aldaketa horiek, funtsean, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuen kapituluan duten eragina.

Aitortutako betebeharrak 6,8 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 91ko betetze-maila izan dute. Betetze-maila hori justifikatzen da funtsean funtzionamenduan eta inbertsioetan egindako gastuak txikiagoak izan direlako; izan ere, gastu horiek aurreko ekitaldikoak baino ehuneko zazpi eta ehuneko 97 txikiagoak izan dira.

Aitortutako eskubideek 7,69 milioi egiten dute, ehuneko 103ko betetze-mailarekin; portzentaje hori azaltzen da, funtsean, tributuen bidez lortutako diru-sarrerak handiagoak izan direlako, batez ere lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari dagokionean.

Beren izaerari erreparatuta, ia gastu eta diru-sarrera guztiak arruntak dira.

Taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren Udalak gastatutako 100 eurotik bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzabidea	Zenbatekoa
Langileak	48	Tributu bidezko diru-sarrerak	60
Bestelako gastu arruntak	50	Transferentziak	40
Inbertsioak	0	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	0
Finantza-zama	2	Zorduntzea	0
	100		100

Hona Udalaren 2014rako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2013koarekiko alderaketa:

	2013	2014	Aldea (%) 2014/2013
Aitortutako betebeharrak, guztira	7.595.742	6.799.921	-10
Likidatutako eskubideak, guztira	7.062.523	7.689.219	9
Gastuen betetzea (%)	92	91	-1
Diru-sarreraren betetzea (%)	85	103	21
Ordainketak (%)	95	95	0
Kobratutakoa (%)	94	94	0
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	7.207.452	6.660.355	-8
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	7.179.346	6.643.546	-7
Inbertsioen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	260.819	7.529	-97
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	127.471	131.837	3
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	7.052.923	7.689.219	9
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	4.116.092	4.634.817	13
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	9600	0	-100
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	42	40	-5
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	57	60	5
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-533.219	889.498	267
Aurrekontu-emaizta doitua	-297.560	889.498	399
Aurrezki gordina	-126.423	1.045.673	927
Finantza-zama (3. eta 9 kapituluak)	155.577	148.646	-1
Aurrezki garbia	-282.000	897.027	418
Zorpetze maila (%)	2	2	0
Zorpetze muga (%)	-2	14	800
Zorpetze-ahalmena (%)	-4	12	400
Diruzaintza-gerakina, guztira	809.326	1.620.775	100
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-775.306	175.508	123
Zor bizia	1.258.487	1.126.650	-10
Diru-sarrera arruntaren gaineko zor bizia (%)	18	15	-17
Zor bizia biztanleko	114,65	104	-9
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	-9,95	7	-170

2014an, Udalak ehuneko 10 gutxiago gastatu du; diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 9 handiagoak izan ditu.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko zortziko jaitsiera izan da; eta diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko 9 egin dute gora. Tributu izaerako diru-sarrerak ehuneko 13 igo dira.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioa positiboa da, 889.498 eurokoa, eta horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak izaera bereko gastuak finantzatzeko behar adinakoak direla. 2013ko ekitaldian, saldoa 533.219 euro negatiboa izan zen.

Aurrekontu-emaizta doitua 0,9 milioikoa da; aurreko urtean, berriz, -0,3 milioikoa izan zen. Superabit hori sortu da diru-sarrera arruntak funtzionamendu gastuak eta finantza-zama finantzatzeko behar adinakoak izan direlako.

2014an bai aurrezki gordina bai aurrezki garbia positiboak izan dira biak, ez aurreko ekitaldian bezala, orduan negatiboak izan baitziren. 2014an finantza-oreka lehengoratzera bideratutako neurriak hartu badira ere, segur aski errepikatuko ez diren inguruabar berezi batzuk ere gertatu dira, diru-sarrerari dagokienez; esate baterako, ohikoak baino askoz altuagoak diren plusbalio-zerga batzuen aitortpena, bai eta ebaztitako epai judizial baten ondorioz sortutako berandutza interes batzuen aitortpena eta kobrantza ere. Gastuei dagokienez, aurreikustekoa da 2014an bajak izan diren lanpostuak dagozkien langileekin betetzea; kirol instalazioetako gas-fakturak berriz ere kontsumo erreal eta efektiboari egokitzea; eta konponketa- eta mantentze-lanen bolumenak gora egitea, zeren eta azkeneko ekitaldian halako lanak ezinbestekoak direnetara mugatu baitira.

Zorpetze-maila ehuneko 2koa da, eta ehuneko 14ko muga du; horregatik, hain zuzen, oraindik ere badu zorpetze berria hartzeko ahalmen ekonomikoa.

Diruzaintzako guztizko gerakina 1,6 milioikoa da, eta ehuneko 100 egin du gora 2013koarekin alderatuta. Gastu arruntetara bideratutakoa ehuneko 123 igo da, -0,78 milioikoa izatetik 0,17 milioikoa izatera iragan baita.

Epe luzeko zorra 1,13 milioikoa da, eta ehuneko 10 egin du behera 2013koarekin alderatuta; zor hori –biztanle bakoitzeko 104 eurokoa dena, guztira– entitatearen diru-sarrerara arrunten guztizkoaren ehuneko 15 da. Bada, ehuneko hori gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen diru-sarrerara arrunten ehuneko 110eko lege-mugaren azpitik dago.

Antsoingo Udalak 2006-2014 aldian honako bilakaera izan du diru-sarreretan eta gastuetan:

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Kapitulua	Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1	Zuzeneko zergak	2.304.199	1.792.881	1.909.214	2.121.235	2.204.448	2.288.065	2.317.702	2.436.359	2.652.960
2	Zeharkako zergak	946.323	1.005.015	668.191	57.179	94.986	149.606	230.194	27.403	21.617
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	2.300.175	2.262.353	2.037.563	2.012.285	2.050.629	2.212.572	1.821.480	1.652.329	1.960.240
4	Transferentzia arruntak	2.571.435	2.661.659	2.962.109	2.995.648	3.211.433	2.950.437	2.901.221	2.923.763	3.040.941
5	Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	113.990	175.964	297.378	207.111	170.780	52.676	16.128	13.068	13.461
6	Inbertsio errealen besterentzea	2.506.157	340.722	3.746.901	0	18.658	0	0	0	0
7	Kapital-transferentziak	2.405.498	674.246	915.419	2.845.680	1.454.925	339.425	0	9.600	0
8	Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
9	Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira		13.147.777	8.912.840	12.536.775	10.239.138	9.205.859	7.992.781	7.286.725	7.062.522	7.689.219

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Kapitulua	Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1	Langile-gastuak	2.861.899	2.975.019	3.242.892	3.414.827	3.383.223	3.347.917	3.360.493	3.357.749	3.236.305
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	3.215.247	3.243.923	3.892.139	4.092.555	4.091.873	4.258.563	3.871.340	3.296.168	2.886.362
3	Finantza-gastuak	169.981	98.297	156.182	88.878	45.005	31.425	33.738	28.106	16.809
4	Transferentzia arruntak	431.081	440.560	484.128	521.728	598.881	573.524	580.167	525.429	520.879
6	Inbertsio errealak	1.528.308	1.272.849	3.749.713	3.380.990	1.693.868	850.510	104.435	260.819	7.529
7	Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
8	Finantza-aktiboak	0	0	0	0	2.040	0	0	0	0
9	Finantza-pasiboak	3.428.269	155.803	143.755	153.772	163.479	191.563	120.541	127.471	131.837
Guztira		11.634.785	8.186.451	11.668.809	11.652.750	9.978.369	9.253.502	8.070.714	7.595.742	6.799.721

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, 2009ra arte inbertsio-prozesu adierazgarri bat badago, kapital-transferentziekin eta inbertsioen besterentzearekin finantzatzen dena.

Krisi ekonomikoarekin bat, inbertsioek behera egin dute nabarmen, bai eta haiekin lotutako diru-sarreraren kapituluek ere.

2014an, gastu maila apalenera iritsi da, eta 2010-2014 urteetan egindako doikuntzen ondorioz, aurrekontu-superabita eta aurrezki garbi eta diruzaintza-gerakin positiboak izatea lortu da.

Udalak aurrera eraman duen jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da (ikus oroitidazkia) 2011tik 2014ra.

Adierazlea	2011	2014	Aldea (%), 2014/2011
Zorpetze ahalmena	% -10	%12	-
Inbertsio indizea	% 9	% 0	-100
Gastu arrunta biztanleko	762 €	613 €	-20
Tributu diru-sarrerak/biztanleko	432 €	426 €	-1

Ikus daitekeen bezala, 2011tik 2014ra ez da inbertsiorik egin eta gastu arruntek behera egin dute; aldi berean, eta tributu bidezko diru-sarrerei ia bere horretan eutsi zaie. Horrekin, zorpetze-ahalmena negatiboa izatetik positiboa izatera pasa da.

Horrenbestez, amaierako laburpen gisa, Antsoingo Udalak bere finantza-egoera hobetu du, neurri handi batean 2014ko ekitaldiko inguruabar bereziei esker, bai diru-sarrerei, bai gastuei dagokienez; halere, finantza-orekari eustera bideratutako neurriak ere hartu ditu.

Beraz, epe ertainean bideragarritasun ekonomikoa bermatze aldera, beharrezkoa da Udalak jarraipena eman diezaiela gastuari eusteko eta diru-sarrerak handitzeko politikiei, aurrezki garbiak positiboa izaten jarrai ezan eta diruzaintza-gerakina ere positiboa izan dadin.

IV.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den aztertu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean eta urrian horretarako eman dituen gidez baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	1.021.335
Diru-sarreraren bidezko doikuntzak	271.344
Interesen bidezko doikuntzak	-68
Finantzatzeko ahalmena	1.292.611

Antsoingo Udalak bete egiten ditu bai finantza-egonkortasunaren baldintzak, bai gastuaren araua ere, zeren eta egoztekoa den gastua txikiagoa baita ezarritako muga baino (2013an, ehuneko 1,5 egin zuen gora). Halaber, finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen du, zeren eta zorrak diru-sarrera arrunten ehuneko 15 egiten baitu; hori dela eta, ezarritako ehuneko 110etik behera dago.

Oro har, Udalak betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak.

IV.5. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honen 2013ko ekitaldiko txostenari dagokionez, garrantzizko aholku hauek oraindik gauzatzeko daude, txosten honen VI. atalean berresten den bezala:

- *Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzeko prozesua burutzea.*
- *Udal-ondasunen inbentarioaren eguneratzea burutzea.*

V. UDALAREN 2014ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, 2014ko kontabilitatearen egoera-orri bateratu (Udala gehi erakunde autonomoak) garrantzitsuenak azaltzen ditugu.

V.1. 2014ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA**Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren ehunekoa	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	3.455.430	-27.100	3.428.330	3.236.305	94	3.199.539	99	36.766
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	3.064.018	82.544	3.146.562	2.886.362	92	2.580.597	89	305.764
3. Gastu finantzarioak	46.081	1.000	47.081	16.809	36	16.809	100	
4. Transferentzia arruntak	568.813	3.100	571.913	520.879	91	516.605	99	4.274
6. Inbertsio errealak	29.000	-1.262	27.738	7.529	27	6.043	80	1.486
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	111.646		111.646	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	131.980		131.980	131.837	100	131.837	100	
Guztira	7.406.969	58.282	7.465.251	6.799.721	91	6.451.431	95	348.291

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubi-deak	Betetakoa (%)	Kobrantsak	Kobrantsa (%)	Kobrantszeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	2.381.054	0	2.381.054	2.652.960	111	2.390.880,33	90	262.080
2. Zeharkako zergak	17.000	0	17.000	21.617	127	5.192,79	24	16.425
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.813.646	58.282	1.871.929	1.960.240	105	1.851.832,98	94	108.407
4. Transferentzia arruntak	3.078.067	0	3.078.067	3.040.941	99	2.996.947,70	99	43.993
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	47.202	0	47.202	13.461	28	10.464,28	78	2.996
6. Inbertsio errealak besterentzea	70.000	0	70.000	0	0	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	7.406.969	58.282	7.465.251	7.689.219	103	7.255.318	94	433.901

V.2. 2014ko AURREKONTU BATERATUAREN EMAITZA

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2014ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	7.062.523	7.689.219
- Aitortutako betebeharrak	7.595.742	6.799.721
Aurrekontu-emaizta	-533.219	889.498
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	8.023,38	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	1.289	0
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak		
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	242.394	0
Aurrekontu-emaizta doitua	-297.560	889.498

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2014ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2014ko ekitaldia
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	946.038	544.771
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	444.928	470.382
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	1.632.379	937.412
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	62.005	3.589
(-) Bilketa zaileko eskubideak	1.191.514	866.612
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	1.761	0
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.387.487	54
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	372.488	348.291
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	16.136,20	16.778
(+) Diru-sarreraren itzulketak	1.727	37.721
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	274,03	386
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	997.411	145.843
(+) Diruzaintzako funts likidoak	1.250.776	1.624.250
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	809.326	1.620.775
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	109.476	109.476
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	1.475.157	1.335.791
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-775.306	175.508

V.4. 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

Aktiboa

Deskribapena	2014	2013
A Ibilgetua	21.850.677,87	23.149.723
1 Ibilgetu materiala	21.548.911,77	22.779.899
2 Ibilgetu ez-materiala	283.693,40	351.751
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0,00	0
4 Herri-ondasunak	15.730,98	15.731
5 Finantza-ibilgetua	2.341,72	2.342
C Zirkulatzaila	3.039.068	3.393.410
8 Zordunak	1.411.383	2.139.312
9 Finantza-kontuak	1.628.632	1.254.098
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)		3.502.008
Aktiboa, guztira	24.889.746	30.045.141

Pasiboa

Deskribapena	2014	2013
A Funts berekiak	23.214.462	27.397.132
1 Ondarea eta erreserbak	13.556.131	17.738.800
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	0,00	0
3 Kapitaleko diru-laguntzak	9.658.332	9.658.332
C Epe luzeko hartzekodunak	1.126.650	1.258.487
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	1.126.650	1.258.487
D Epe laburreko hartzekodunak	548.633	1.389.552
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	548.633	1.387.762
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	0	1.761
Pasiboa, guztira	24.889.746	30.045.171

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2014an

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	1.469.090	1.316.553
61 Langile-gastuak	3.236.685	3.359.769	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	476.660	328.695
62 Finantza-gastuak	16.809	28.106	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	1.792.362	1.764.166
63 Tributuak	12.918	12.782	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	489.122	489.064
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	2.873.064	3.281.365			
65 Gizarte prestazioak	0	0	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	3.040.941	2.923.763
67 Transferentzia arruntak	520.879	525.429	77 Kapitalaren gaineko zergak	393.094	210.533
68 Kapital-transferentziak	0,00	0	78 Bestelako diru-sarrerak	27.950	20.149
69 Amortizaziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak	1.306.574	2.733.114	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0	0	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	277.710	2.887.643
Guztira	7.966.929	9.940.565		7.966.929	9.940.565

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	277.710	2.887.643	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	0	0
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	0,00	0	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0,00	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	402.952	11.325	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	0	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	0,00	0	89 Galera garbia, guztir (saldo zorduna)	680.662	2.898.967
Guztira	680.662	2.898.967	Guztira	680.662	2.898.967

VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- Udalak 2014ko azaroaren 27ko Osoko Bilkuran eman zion onespena 2014ko aurrekontuari. Behin betiko onespena, berriz, 2014ko urtarrilaren 24an eman zion.

- Kontu-hartzaitzak 1995ean inbentario bat egin zuen, eta 2007an berrikusi zen, ibilgetu materialaren, ibilgetu ez-materialaren eta herri-lurren kontabilitate-kontuekin alderatuz. Gero, udal zerbitzu batzuen kostuak aztertzearen karietara, urtero gaurkotzen joan da 2014ra arte: kontuetan gertatutako balio-galerak kontabilizatu dira eta altak ere sartu dira, baina formalki onesteko zain dago.

- Udalak bere ibilgetuko elementuen prezioaren beherapena kontabilitatean jasotzen du. Oroitidazkiak zerbitzuen kostuari eta kostu horren finantzaketari buruzko analisi bat badauka.

- Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duen 2014ko fakturarik, 2015eko aurrekontuari egotzi zaionik.

- Udalak 2014an hornitzaileei ordaintzeko erabili duen epeari buruzko azterketa eginik, ondorioztatzen da ezen, aztertutako laginari erreparatuta, arau indardunetan ezarritakoa betetzen ari dela, oro har.

- Udala zenbait prozedura judizialean sartuta zegoen. Horien artean, nabarmentzekoa da arkitekto batek aurkeztutako erreklamazioa, atzemandako eraikuntza-akatsak konpontzeko obren ordeko betearazpenaren eta sortutako kalte-galeren ondoriozko gastuen likidazioarenaurkakoa (0,4 milioi euro dira); 2008koak dira biak. Prozedura horiek 2014an amaitu dira, epaiak eman baitira: kasu batean Udalaren alde eta beste batean aurka, forma-akatsak tarteko. Azken kasu horretan, prozesua eragin zuten arrazoiek preskribitu ez dutenez, berriz abiatu da prozedura.

- Udalaren epe luzeko zorraren amortizazio-egutegia, 2014ko abenduaren 31n, honako taulan azaltzen duguna da:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2015	132.372,25	12	12
2016	120.763,72	10	22
2017	109.164,76	10	32
2018	110.196,74	10	42
2019-2024	654.152,60	58	100
Guztira	1.126.650	100	

Gomendatzen dugu udal-ondasunen inbentarioaren eguneratze-prozesua burutzea, eguneratze eta kontabilitate-jarraipen etengabekoak bideratuko dituzten prozedurak diseinatuta.

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 3,27 milioi eurokoa da; hau da, 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 48. 2013ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hori % 3,61 jaitsi da, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa Aldea
	2013	2014	
Goi-karguak	119.186	112.798	-5,36
Kabineteko behin-behineko langileak	10.236	30.733	200,24
Funtzionarioak	1.436.227	1.384.576	-3,60
Lan-kontratudun finkoak	199.573	203.876	2,16
Aldi baterako lan-kontratudunak	518.438	489.853	-5,5
Bestelako langileak	41.428	29.558	-28,65
Gizarte-zamak	1.032.660	984.913	-4,62
1. kapitulua, guztira	3.357.748	3.236.305	-3,61

2014ko ekitaldian, plantilla organikoa onetsi zen, 65 lanposturekin. Guztira, 19 lanpostu hutsik daude eta horietatik 13 aldi baterako beteta daude. Hona horri buruzko taulak:

Zenbat	Lanpos- tuak	Aktiboa	Erreserbako lanpostu hu- tsak	Lanpostu hu- tsak	Betetako erreser- bako lanpostuak	Betetako lanpostu hutsak.
Funtzionarioak	54	36	4	14	1	13
Lan- kontratupe- koak	9	8	-	1	-	-
Behin- behinekoa	2	2	-	-	-	-

2013ko abenduaren 31n, 70 lagunek lan egiten dute Udalean eta haren erakunde Autonomoetan, eta era honetara banatuta zeuden:

Langileak	Udala	Gazte-Berriak Patronatua	Guztira
Funtzionarioak	36	1	37
Lan-kontratudun finkoak	8		8
Aldi baterako lan-kontratudunak	23	2	25
Guztira	67	3	70

Aldi baterako langileak, funtsean, gaixotasunengatikiko bajak, lanaldi-murrizketak, lanpostu hutsak eta abar betetzeko kontratatutakoak dira.

2013ko ekitaldiarekin alderatuta, pertsona bat gutxiago dago.

Udalaren berriarazko langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Administrazio orokorra	4
Administrazio finantzarioa	4
Zerga-administrazioa	2
Polizia	17
Haur Eskola	15
Ikastetxe publikoa	3
Euskara zerbitzua	1
Parkeak eta lorategiak	5
Mantentze-lanetako langileak	6
Berdintasuna	1
Hirigintza	1
Kirol instalazioak	8
Guztira	67

Hau da, udaltzaingo-zerbitzuaren eta haur eskolaren artean langile guztien ehuneko 48 egiten dute.

Udalak honako araua onetsi zuen: “Antsoaingo Udalaren eta bere Patronaturen zerbitzuko langile funtzionarioen lan-baldintzei buruzko erabakia, 2009-2012 urteetarako”. Ganbera honek Udalari buruzko txostenetan behin eta berriz adierazi duen bezala eta Udaleko kontu-hartzaileak oroitidazkietan azaldu duen bezala, hitzarmen honen 10. artikuluan arautzen den jaiegunetarako lanaren ordain ekonomikoa –funtsean udaltzaingoari eta kirol-instalazioetako langileei aplikatu da- kiokeena– Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuan eta gainontzeko ordenamendu juridikoan aurreikusitakoa baino handiagoa da, bereziki jaiegun ez diren egunetako lanaldien zati bat jaiegun gisa hartzen baitu.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, honako ondorioak atera ditugu: oro har, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daude; ordaindu diren lansariak betetako lanposturako erabakita-koak dira; ordainsari horiek 2014an izoztu dira, eta egindako atxikipenak zuzenak dira.

Hona gure gomendioak:

- *Plantilla organikoan sartuta dauden lanpostuak arrazoizkotasunez bete diren aztertzeko prozesua osatzea, hura benetako premietara egokitzen dela egiaztatu ahal izateko.*

- *Udalaren lan-baldintzei buruzko akordioko 10. artikulua Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuan nahiz gainerako ordenamendu juridikoan ezarritakora egokitzea, batez ere jaieguntzat hartzen denari dagokienez.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 2,89 milioi euro egin dute 2014ko ekitaldian; guztira, ekitaldiko gastuen ehuneko 42 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 43 egiten dute.

2013. urtearekin alderatuta, ehuneko 12 egin du behera; horrek 409.806 euroko zenbatekoa egiten du. Horren azalpena da, nagusiki, beste enpresa batzuek egindako lanengatiko gastua gutxitu dela (119.261 euro) eta hornidura-gastuak ere gutxitu direla (176.700), zeren eta arazo bat baitzegoen kirol instalazioetako gas-horniduren fakturazio akastunarekin, eta hura zuzendu egin baita (ikus oroitidazkiko iruzkina).

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa	2014an betetakoa
Musika Eskolaren Zerbitzua	Laguntza	Irekia, European publizitatea eginda / eskaintza onena	235.000	2	232.000	77.320*
Euskaraz egindako jarduerak	Laguntza	Irekia	11.650	1	10.400	3.467**
Ikastetxea garbitzeko zerbitzua	Laguntza	Irekia, European publizitatea eginda / eskaintza onena	84.000	6	75.806	0***

* Kontratua 2014-09-01ean hasi zen; hori dela eta, 4 hilabete bete dira 2014ko ekitaldian.

** Kontratua 2014-09-01ean hasi zen; hori dela eta, 4 hilabete bete dira 2014ko ekitaldian.

*** Kontratua 2015-03-16an hasi zen.

Espeditente horiei eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz egindako azterketaren bitartez egiaztatu da behar diren fakturekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta, oro har, aplikatzekoa den araudia errespetatu dela.

VI.4. TRANSFERENTZIA ARRUNTEN ONDORIOZKO GASTUAK

Izaera hori duten gastuek 0,521 milioitan egin dute gora. 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 8 eta gastu arrunten ehuneko 8 egiten dute. Hona haiei buruzko xehetasunak:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%), 2014/2013
	2013	2014	
Udalei	0	0	0
Zerbitzu administratiboen batasunei	2.638	1.890	-28
Mankomunitateei	399.338	401.086	0,4
Familiei	25.005	30.098	20
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	93.031	82.794	-11
Beste transferentzia batzuk	5.416	5.013	-7
Transferentzia arruntak	525.428	520.879	-0,8

2013arekin alderatuz gero, gastu horiek ehuneko 0,8 jaitsi dira.

2014an emandako diru-laguntza nagusiak mankomunatutako zerbitzuak finantzatzekoak izan ziren; izan ere, zerbitzu horietara bideratu da kapitulu honetako gastu guztien ehuneko 77.

2008tik, Udalak ordenantza orokor bat dauka honako xedeetarako ematen diren diru-laguntzei buruz: kultura, hezkuntza, kirola, gazteria, laguntza, laguntza humanitarioa eta arlo soziala. Halaber, 2014an, zenbait deialdi publiko egin dira kultura eta lankidetzako arloetako jarduerak egiteko. Gainera, beste diru-laguntza batzuk ere badaude, zuzenean ematen direnak (ikastetxea, parro-

kiako Caritas, Gutxitu Fisikoen Elkarte eta taxi-bonoa, Errege-kabalgata, Olentzero, Erraldioen eta Kilikien Konpartsa).

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastu horien kudeaketa egokia izan dela, oro har.

VI.5. INBERTSIOAK

2014rako behin betiko inbertsio-aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen -27.738 euro- ehuneko 27 gauzatu dira -7.529 euro-.

2013rekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 97 -hau da, 244.724 euro- egin dute behera. Inbertsioetan egindako gastuak beheranzko joerari eusten dio azken ekitaldian, gastuetan aurrezteko neurrien ondorioz.

Honakoak izan dira 2014an egindako inbertsioetako gastu nagusiak:

Inbertsioa	Zenbatekoa
Kirol instalazioetarako makineria	958
Haur eskolarako lokalak	1.516
Musika eskolarako ekipamendua	2.956
Mantentze-lanerako makineria	1.487

Adierazi beharra dago espediente gehienak prozedura negoziatuaz izapidetu direla, Europar Batasunean publizitaterik egin gabe, Kontratu Publikoek buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 73.4.e) artikuluan aurreikusitako izapideak direla eta.

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2014ko ekitaldian aitortutako eskubideak 7,69 milioioak izan dira; ehuneko 100 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerari dagozkie. Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 103koa izan da.

Diru-sarrera arruntan artean tributuen bidezko diru-sarrerak (4,63 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (3,04 milioi eurokoak) nabarmentzen dira.

Udalak ez du nabarmentzeko moduko diru-sarrerarik jaso 2014ko hirigintza-eragiketen ondorioz.

2013. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 9 egin dute gora. Hona xehakatzeara:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%) 2013/2014
	2013	2014	
1. Zuzeneko zergak	2.436.359	2.652.960	9
2. Zeharkako zergak	27.403	21.617	-21
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.652.329	1.960.240	19
4. Transferentzia arruntak	2.923.763	3.040.941	4
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	13.068	13.461	3
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	7.052.923	7.689.219	9
6. Inbertsioen besterentzea	-	0	
7. Kapital-transferentziak	9600	0	
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	9600	0	
8. Finantza-aktiboak	-	-	-
9. Finantza-pasiboak	-	-	-
Finantza-eragiketen diru-sarrerak (8 eta 9)	-	-	-
Diru-sarrerak, guztira	7.062.523	7.689.219	9

3. kapituluaren barruan, nabarmentzekoa da kirol instalazioetako erabiltzaileen kuoten bi-dezko diru-sarrerak ehuneko 14 egin dutela gora 2013koekin alderatuta, abonatuena alta gehiago izan direlako eta abonuen prezioak gorantz gaurkotu direlako. Abenduaren 31n, 4.129 bazkide zeuden izena emanda instalazioetan; aurreko ekitaldian, berriz, 3.992 bazkide zeuden izena emanda.

Ondorengo taulan udal-zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubideak		Aldearen ehuneko 2013/2014
	2013	2014	
Lurraren gaineko kontribuzioa	1.502.969	1.540.975	3
Ibilgailuak	489.064	489.122	0
Lurren balio-gehikuntza	210.533	393.094	87
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	233.794	229.770	-2
EIOZa	27.403	21.617	-21
Guztira	2.463.763	2.674.578	9

Alde garrantzitsuenak lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergan gertatzen dira, ehuneko 87 egin baitute gora, zenbait urtez behera egiten joan ondoren. Plusbalioen 166 espediente izapidetu dira; aurreko ekitaldian, berriz, 145 izan ziren.

EIOZean, 2006an kobratutako 69.893 euro itzuli dira, epai baten ondorioz. Aurreko egitate hori kontuan hartu gabe, urteko diru-bilketa erreala aurreko urtekoa baino handiagoa da.

Balorazio-ponentziaren azken eguneratzea 2011. urtean egin zen.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain/altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,21	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,8 eta 3,4 bitarte	2,1 - 3,6 bitartean
Zerga-tasa	12,28	8tik 20ra
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2 - 5

Tasa horiek, izoztu egin dira 2013. urtearekin alderatuta, kontribuzioaren kasuan izan ezik.

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

VI.7. HIRIGINTZA

Antsoaingo Udalak bere baliabideekin betetzen ditu hirigintzako zereginak.

Antsoaingo Udalaren Antolamendu Plana 1997an onetsi zen, eta ia erabat garatuta dago.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta moldatzeko. 2009an, Udala bere plana aztertzen hasi zen. 2012an, Udalaren Osoko Bilkurak udal plan berria eta dagokion ingurumen-eraginaren azterlana hasiera batez onetsi ditu, eta bi hilabetez jarri ditu jendaurrean. 2013ko irailaren 25ean, Udalbatzako Osoko Bilkurak Antsoaingo Udal Plan Orokorra onetsi zuen, eta hasierako onepenen ondoren aurkeztutako alegazioak ebatzi zituen. Ondoren, espediente osoa Sustapen Departamentuari igorri zitzaion, behin betiko onetsi zezan.

Udalak ez du Lurzoruaren Udal Ondareari dagokion berriazko inbentario eta erregistrorik, nahiz eta Lurzoruaren Udal Ondaretik datozen baliabide atxikien jarraipena egiten duen.

1994tik 2014ra, Udalak, ondarearen besterentzetik eta hirigintza-aprobetxamenduetatik, 17,25 milioi hartu dituela, eta 1,34 milioiko zenbatekoa egiten duten inbertsio berrien finantzaketa aplikatzeko dagoela.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintza-plangintza Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenetara moldatzeko prozesua onestea.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko otsailaren 3an
Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas